

5

Paisaia-politika ezarri berriaren aukeraz

Unai Fernandez de Betoño

UPV/EHU – Euskal Herriko Unibertsitateko Hirigintza irakaslea eta UEUKidea

unai.fernandezdebetono@ehu.eus

Sarrera-data: 2025-03-30 | Onartze-data: 2015-06-15

Laburpena. Paisaia-politika ezarri berriak aukera egokia ireki diezaioke hizkuntza-ikuspegia lurralde-antolakuntzako plangintza-tresnetan modu eraginkorrean behingoz txertatzeari. Paisaiaren kontzeptuarekin kontrolatu nahi diren elementuak ez baitira soilik natur babesaren eremukoak edo lurralde-perzepzioaren alorrekoak: ondare kulturala ere paisaiaren zati garrantzitsua da. Eta ezinezkoa denez ondare kulturalaz hitz egitea hizkuntza-ondarea ere kontuan eduki gabe, Euskal Herriko paisaia babesteko, antolatze eta kudeatzeko, euskararen berezko altxor kulturala ezin da gehiago alboratu, baita paisaia- eta ingurumen-politikak koordinatu behar dituen lurralde-antolakuntzari dagokionean ere. • *Hitz gakoak: paisaia, lurralde-antolakuntza, kultura-ondarea, euskara.*

Abstract. The recently implemented landscape policy has opened up a good opportunity to incorporate the language perspective effectively once and for all into the planning tools for spatial organisation. This is because the elements that the landscape concept sets out to control do not belong exclusively to the sphere of nature conservation or territorial perception: cultural heritage is also an important part of the landscape. And as it is impossible to talk about cultural heritage without taking language heritage into consideration as well, when it comes to protecting, organising and managing the Basque Country's landscape, the intrinsic cultural wealth of the Basque language can no longer be ignored, nor with respect to the spatial organisation that has to coordinate landscape and environmental policy. • *Key words: landscape, spacial planning, cultural heritage, Basque language.*

SARRERA: PAISAIAREN BAITAKO HIZKUNTZA

I Gure artean kontzeptu aski erabilia da, lehenik, hizkuntza-paisaiarena. Errotulazioetako, komunikazio-idatzietako eta jendearen arretan erabilitako hizkuntza-erabilera izendatzeko baliatu da, bereziki azken hamabost urteotan, Landry eta Bourhis soziolinguistek etnolinguistikaren jakintza-alorretik definitu zutenetik (1997: 25). Hizkuntza-ekologiaren edo ekolinguistikaren inguruan, bigarrenik, *corpus* teoriko aski interesgarria sortzen ari da azken urteotan, Halliday hizkuntzalariak hizkuntzen testuinguru ekologikoen funtsaz ohartarazi zuenetik (1990). Hizkuntzaren baitan lurraldeaz eta paisaiaz dagoen ulerkeraz eta kontzeptualizazioaz, hirugarrenik, dagoeneko zerbait idazten hasi da oso bestelako ikuspegi etnologikoetatik, hots, etnoekologiaren, etnogeografiaren eta etnofisiografiaren alorretatik (Mark *et al*, 2011). Artikulu honetan aldarrikatu nahi dena, ordea, ez da ez hizkuntza-paisaiaren garrantzia, ez hizkuntza-ekologiarena, ezta hizkuntzaren baitako paisaiaren ulerkeraren munta ere, baizik eta paisajismoaren diziplinaren baitako hizkuntzarekiko eta hiztunekiko kontzientziaren beharra. Zehazkiago, hemen defendatu nahi den tesia da hizkuntza-ikuspegia paisajismoan txertatu behar dela, eta, ondorioz, baita lurraldea eta hiriak antolatzeko plangintza ofizialean sartu ere, paisaia-arau ezarri berriak ganoraz beteko badira.

Euskaldunon lurraldera jaitsita, hemen defendatu nahi dena da euskaldunaren habitata babesteko, eta, ahal bada, baita zabaltzeko ere, ez dela aski orain arte batzuek defendatu duten paralelismoa, hitzunen eta espezie naturalen galeraren artekoa. Alegia, ez dela nahiko euskaldun *gajoa* eta galbidean dagoen Igeldoko igelatxo alderatzea. Berezko biodibertsitatearen babesaren eta berezko hitzunen defentsaren arteko erlazio horri beste bat gehi dakiokela, beharbada eraginkorragoa ere izan daitekeena: berezko hizkuntza tokiko (kultura-)paisaiaren zati ezinbestekotzat jo behar dela, eta hala babestu, antolatu eta kudeatu beharra dagoela, baita —paisaiaren ardura hartzen ari diren— lurraldea antolatzeko plangintza-politiketarik ere.

LURRALDE-ANTOLAKUNTZA, INGURUMEN-POLITIKA ETA PAISAIAPOLITIKA

Lurralde-antolakuntza lurraldean zehar banatzen diren erabilerak espazialki antolatzeaz arduratzen da bereziki. Ingurumen-politikak biodibertsitatearen babesa du helburu nagusi. Paisaia-politika, berriz, lurraldearen pertzepzioan espezializatu da. Hiru alor ezberdin dira,

Hemen defendatu nahi den tesia da hizkuntza-ikuspegia paisajismoan txertatu behar dela, eta, ondorioz, baita lurraldea eta hiriak antolatzeko plangintza ofizialean sartu ere, paisaia-arau ezarri berriak ganoraz beteko badira.

Paisaiaren ideia lurrealdeak duen itxura hutsaz harago baitoa –nortasunaren eremuan bete-beteen sartuz –, haren izaera «natur edota giza faktoreen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza» dela ofizialki ziurtatu baita (Europako Kontseilua, 2000: 1. artik.).

antzeko eszenarioa lantzeagatik ere. Lurrealdean antolatzen den ikuspegi espazialari ikuspegi kontserbazionista gehitu zaio azken urteotan, eta, orainoan, ikuspegi estetikoak ere gehitzeko ordua da. Eta ez soilik estetikoak, paisaiaren ideia lurrealdeak duen itxura hutsaz harago baitoa —nortasunaren eremuan bete-beteen sartuz—, haren izaera “natur edota giza faktoreen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza” dela ofizialki ziurtatu baita (Europako Kontseilua, 2000: 1. artik.).

Aipatutako giza faktore horietan dago gakoak, hain zuzen ere, nazioartean aitortu delako gizakiaren ekintza dela lurrealdeari ondare-balioa eman diezaiokeen bi osagaietako bat, natur konfigurazio bereizgarriekin batera. Paisaia-politikak, hortaz, “tokian tokiko kulturen eraketa” bultzatu beharko luke, Paisaiaren Europako Hitzarmenak —Europako Kontseiluko herrialde kideek 2000an Florentzian adostutakoa— dioten bezala, kultur ondarea funtsezko osagaia delako “gizakien ongizatea eta europar identitatea bermatzeko” [1]. Hiruko erregela agerikoa da: Paisaiaren Europako Hitzarmenak europar identitatea bermatu behar badu, Euskal Herriko paisaia-arauek —eta horiek bildu eta ordenatu behar dituzten lurrealde-antolakuntzako eta hirigintzako planek— euskal herritar identitatea babestu beharko lukete.

Oraingoan, eta paisaiaren gai aski berriari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko arkitektura juridiko-urbanistikoa da lanketa aurreratuena —espezifikoa— duena Euskal Herrian. Ondorioz, soilik EAEko kasua aztertuko da jarraian.

AURREKARIA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANDA-INGURUNEA GARATZEKO LEGEA

I
Paisaia soilik arautu ez bazuen ere, oso esanguratsuak izan ziren EAEko landa-ingurunea garatzeko 10/1998 Legeak haren bigarren artikuluan ezarri zituen bederatzi helburu orokorretatik bi, paisaiarekin —eta hemen defendatzen den tesiarekin— erabat erlazionaturakoak: “landa-ingurunearen berezko ezaugarri nagusiei eustea” (2. helburua), eta, bereziki, “landa-inguruetako natur, histori, kultur eta hizkuntza ondarea berreskuratu, artatu, garatu eta zabaltzea” (7. helburua). Bai: hizkuntza-ondarea berreskuratzea, artatzea, garatzea eta zabaltzea EAEko landa-ingurunea —lurzoru urbanizaezina— garatzeko politika ofizialetako helburu orokor bat da. Legez. Horrez gain, hizkuntza beste behin aipatzen da 10/1998 Legean, landa-ingurunerako garapen-programek jorratu behar dituzten jarduerak zehazterakoan, laugarren eta

azken jarduera hurrengoa baitzen: “Landa zonaldeetako zerbitzuak EAEko gainerako zonaldeetakoekin parekatzea, hezkuntzan, osasunean, etxebizitzan, gizarte-zerbitzuetan, kultur azpiegiturretan eta zerbitzuetan eta hizkuntz normalizazioan batez ere”. Hala ere, programa horien barnean —18, guztira, eskualde adina— ez da diru berezirik bideratu landa-eremuaren hizkuntza-normalizaziorako, 10/1998 Legean agertzen ez diren beste gai berri batzuk —genero-ikuspegia, kasu— naturaltasun osoz —eta, ziurrenik, egokiro— txertatu badira ere.

Eusko Jaurlaritzak EAE osorako egindako *Landa Garapenerako Programa 2007-2013* delakoan, halaber, euskara aipatzen da —behin bakarrik bada ere, espainiera petoan idatzitako 800 orrialdeko txosten mardulean [2]—, zerrendatutako bigarren ardatzaren (Ingurumenaren eta landa-ingurumenaren hobekuntza) dimentsio sozioekonomikoaren azalpenean:

Dimensión sociocultural: el apoyo al mantenimiento de las explotaciones más sensibles y las medidas a impulsar desde este eje incidirán también en la fijación de la población en el medio rural, y en hacer del espacio rural un entorno atractivo para la vida, que contribuirán al mantenimiento de las características socioculturales propias de este medio, y que en la CAPV son especialmente significativas (mantenimiento de la lengua euskara, tradiciones culturales, deporte rural...).

EAEko *Landa Garapenerako Programa 2014-2020* berriaren proposamenean, ordea, euskarari egindako aipamen txiki baina berariazko hori desagertu egin da, *kultura* orokorragoaren mesedetan.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PAISAIAREN DEKRETU BERRIA

Aurreko gobernu sozialistak, azkenean, ezin izan zuen Paisaiaren Legea behin betikoz onetsi. Oraingo gobernu jeltkideak, ordea, 90/2014 Paisaiaren Dekretua jarri zuen indarrean iazko ekainean: Euskal Herriko zati baten paisaia berariaz erregulatzen duen lehen eskualde-araua [3]. Hasteko, paisaiaren definizioari dagokionez, arestian aipatutako Europako Hitzarmeneko bere horretan onartu du EAEko dekretuak: paisaia da “lurraldearen edozein zati, biztanleriak hautematen duen moduan, zeinaren izaera natur edota giza faktoreen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza baita”. Pertzepzioa jasotzeaz gain, beraz, lurraldearen izaera ere barne hartzen du arautu berri den paisaiak. Oso kontzeptu interesgarria esku artean dugun gairako, izaera hori giza faktoreek ere osatzen dutela —dekretuz— esaten den heinean. Gainera, ingurumen-

Bai: hizkuntza-ondarea berreskuratzea, artatzea, garatzea eta zabaltzea EAEko landa-ingurunea —lurzoru urbanizaezina— garatzeko politika ofizialetako helburu orokor bat da. Legez.

Paisaiaren dekretuak, hortaz, aukera juridiko interesgarriak irekitzen dizkio hizkuntza-ikuspegia lurralde-antolakuntzan txertatzeko behar larriari, publikoki dagoeneko aldarrikatu duguna (Fernández de Betoño, 2014).

politika sektorialekin hain zehazki gertatzen ez den bezala, 90/2014 Dekretuak arautzen duen guztia lurralde-antolakuntzaren diziplinan hertsiki kokatu beharra dago, xedea azaltzen duen lehen artikulua hasieran bertan argi zehazten denez.

Paisaiaren dekretuak, hortaz, aukera juridiko interesgarriak irekitzen dizkio hizkuntza-ikuspegia lurralde-antolakuntzan txertatzeko behar larriari, publikoki dagoeneko aldarrikatu duguna (Fernández de Betoño, 2014). Dekretuaren bigarren artikuluan zehazten den lehen helburua, hain zuzen ere, “berezko izaeragatik edo kultura-izaeragatik jardun espezifikoa eta integratuak behar dituzten paisaien balioak kontserbatzea” da; eta, zazpigarren helburua, “paisaiari balioa ematea, EAEko gizartearen kulturaren proiektio gisa, eta, ondorioz, haren identitatearen adierazpen gisa”. Bi helburu horiek EAEn indarrean dagoen euskararen legean ziurtatzen denarekin gurutzatzen badira —euskara da “Euskal Herriaren kultura-ondarearen funtsezko osagai” (EAEko Administrazioa. Lehendakaritza, 1982: Zioen adierazpena)—, ez dago lekuz kanpo ondorioztatzea euskara, kultura-ondare den heinean, paisaiaren zati ere badela, eta, hortaz, lurralde-antolakuntzak hura babesteko, kudeatzeko eta antolatzeko betebeharrak duela.

90/2014 Dekretuak sortzen dituen plangintza-tresnetako nagusia paisaia-katalogoa da (4. artik.). Katalogoek paisaia-interes bereziko eremuak identifikatu behar dituzte, deskribatzen diren bost irizpideetako bati jarraikiz, besteak beste, “paisaia ezohiko edo mehatxatu gisa duen berezitasun, hauskortasun edo adierazgarritasunagatik” (1. irizpidea) eta “eremu funtzionalaren identitatea eratzeko erabakigarria izateagatik” (4. irizpidea), biak ala biak berezko hizkuntza gutxitu baten euskarri den lurralde —paisaia— batekin erabat identifikagarriak.

LEHEN PAISAIA-KATALOGOAK: ENKARTERRIAK, ERRIOXA ETA UROLA KOSTA

Hamabost paisaia-katalogo egin beharko dira EAEn: 1997ko Lurraldea Antolatzeako Gidalerroek zehaztutako area funtzional bakoitzeko bat. Oraingoz, hiru idatzi dira: Enkarterrietako area funtzionalekoa (Balmaseda-Zalla), Arabako Errioxakoa (Guardia) eta Urola Kostakoa (Zarautz-Azpeitia) [4]. Beharbada, eztabaidagarria izan daiteke baieztatzea euskara Enkarterrietako edo Errioxako paisaiaren zati dela, gaur egun bederen, baina ezin da ukatu Urola Kostako area funtzionaleko kulturaren duen pisu itzela, herritarren % 73,5 euskaldunak baitziren 2011n (Eustat).

Hala ere, Zarautz-Azpeitia area funtzional horretako paisaia-katalogoak ez du bertako hizkuntza ezta aitatzen ere. Ariketa egiazki zaila, *irizpide kulturalak, balio identitarioak dituzten elementuak eta kultura-turismoa* hainbeste aipatzen dituen eta lurraldea (kultura-)paisaiaren ikuspegitik antolatzeke asmoa duen idazlan arauemaile bat izanda. Benetan harri-garria. Izan ere, turismoari dagokionean, esaterako, Urola Kostako paisaia-katalogoak Eusko Jaurlaritzaren Basquetour agentziaren garrantzia aipatzen du, baina alde batera uzten du Basquetour agentziarentzat euskara *basque style* delako zerbaiten nortasun-osagai nabarmena dela [5]. Katalogoak, aldiz, ez du Zarautz-Azpeitiako berezko hizkuntza aintzat hartzen.

Zentzu horretan, bitxia da, halaber, Eusko Jaurlaritzak erabilitako goiburua *Euskadiko Paisaia* sustatzeko: “Zure paisaiaren hitzetan, zu; zure hitzetan, paisaia” [6]. Goiburu horrekin herritarren parte-hartzea bultzatu nahi zen, bereziki paisaia-katalogoen idazte-prozesuan. Hala ere, hitzak ez dira paisaiaren zatitzat jo, oraingoz, ezta Zarautz-Azpeitia bezalako eremu euskaldun bati dagokionean ere. Hortaz, paisaiaren definizio ofiziala hartuta, badirudi Urola Kostan euskara ez dela hautesmaten, eta lur-eremu horren izaera ez duela euskarak —edo euskaldunek— inolaz ere baldintzatzen. Agerikoa izan arren, beraz, gogorarazi beharko da hautematea ez dela soilik begiekin egiten, eta izaera ez dutela soilik osagai materialek osatzen.

ONDORIOA: EUSKARA PAISAIA ERE BADA

Euskara Euskal Herriko paisaiaren zati ere bada. Fribolo samarra dirudien arren, baieztapen horrek ez dio gure hizkuntzari bizitasunik kentzen, inolaz ere, paisaia ez delako kontu estetiko eta estatiko hutsa. Areago, EAEko paisaiaren arautegi ezarri berriak, zehazki, aukera egokiak irekitzen dizkio lurraldea eta hiriak antolatzeke arau eta planetan euskara-ikuspegia txertatzeari. Euskal Herriko berezko hizkuntza kultura-ondarearen zati garrantzitsua delako, garrantzitsuena ez bada.

Arautegi berriek ez ezik, paisaia-adituek ere aspaldi ziurtatu dute kultura paisaiaren zati garrantzitsua dela: “Paisaiaz hitz egiten dugun bakoitzean, sakonean, kultura-paisaiaz egiten dugu” (Nogué, 2008: 12). Eta UNESCOk berak esan du, 2003ko Kultur Ondare Inmateriala Babesteko hitzarmenean [7], kultur ondare inmaterialak ahozko adierazpidea ere baduela, hots, hizkuntza ere kultur ondare inmateriala dela (2. artik.), eta Estatu kideek ondare hori babesteko hainbat neurri hartu

Eztabaidagarria izan daiteke baieztatzea euskara Enkarterrietako edo Errioxako paisaiaren zati dela, gaur egun bederen, baina ezin da ukatu Urola Kostako area funtzionaleko kulturaren duen pisu itzela, herritarren % 73,5 euskaldunak baitziren 2011n (Eustat). Hala ere, Zarautz-Azpeitia area funtzional horretako paisaia-katalogoak ez du bertako hizkuntza ezta aitatzen ere.

**EAEko
paisaiaren
arautegi ezarri
berriak, zehazki,
aukera egokiak
irekitzen dizkio
lurraldea eta
hiriak
antolatzeko arau
eta planetan
euskara-
ikuspegia
txertatzeari.
Euskal Herriko
berezko
hizkuntza
kultura-
ondarearen zati
garrantzitsua
delako.**

behar dituztela (13. artik.), besteak beste, ondare inmateriala balioan jartzeko politikak hartzea eta hura babesteko plangintzan txertatzea. Hainbeste izango al da Espainiako eta Frantziako Estatuei eskatzea sinatu egin dutena praktikara eramatea? Hainbeste izango al da Eusko Jaurlaritzari eskatzea teorikoki arautu egin duena praktika errealean gauzatzeko beharrezko plangintzan —bereziki lurraldea antolatu behar duenean— txertatzea?

Berriro ere gogorarazi dezagun: oraindik indarrean diren 1997ko EAEko Lurraldea Antolatzeako Gidalerroek hauxe zioten 17. atalean (Kultur ondarearen antolamendua): “Hizkuntzaren gaia (...) euskal idiosinkra-siaren funtsezko gotorlekua da. (...) Lurraldearen antolamenduko ele-mentu batzuek (...) funtsezko garrantzia izango dute hizkuntzaren eta ezagutzen transmisio-prozesuetan, inguru desberdinetako pertsonen artean sortzen dituzten erlazioen ondorioz. Lurraldearen antolamenduak (...) ezaugarri hauek kontuan hartuta jardun beharko du, proposatzen diren jarduketek horien gainean izan ditzaketen eragina aintzat hartuz beti”. Baieztapen esanguratsu hori ez da azterketa soziolinguistiko batean txertatu, baizik eta EAEko lurralde-antolakuntzaren tresnarik garrantzitsuenean. Hortaz, hortik beherako plan guztiek —Lurralde Plan Partzialek, Lurralde Plan Sektorialek eta Hiria Antolatzeako Plan Orokorrek, bereziki— kontuan hartu beharko lukete.

Zoritxarrez, ez da aintzat hartu —adibide zehatz bat jartzearren— Oria bailara estrategikoaren hazkunde urbanistikoak (etxebizitzek, azpiegiturek, industrialdeek...) Asteasu, Belauntza, Itsasondo eta Zaldibia bezalako herrien (kultura-)paisaia kaltetu zezakeenik. Baina gertatu da, eta esandako herriak 4. gune soziolinguistikotik 3.era jaitsi dira, Eusko Jaurlaritzaren V. Mapa Soziolinguistikoak berriki erakutsi bezala. Ziurrenik beste faktore batzuk ere egongo dira atzean, baina ez da gutxietsi behar lurralde-antolakuntzak eragiten dituen ondorioak era-bileren —eta, ondorioz, pertsonen— banaketa espazialari dagokionez. Paisaia errotik alda dezake.

Euskara desagertuko balitz Euskal Herriko paisaia berdin hautemango al lukete bisitariak? ●

OHARRAK

1. Harrigarria bada ere, badago euskarazko itzulpen ofizialik: <http://www.coe.int/t/dg4/cultureheritage/heritage/landscape/versionsconvention/Basque.pdf> (kontsulta: 2014/12/2).
2. Hemen dago kontsultagai, Europako Batzordeak egindako bederlatzi aldaketekin batera: http://www.nasdap.ejv.euskadi.net/r50-5333/eu/contenidos/plan_programa_pro

yecto/pdrs_0713/eu_dapa/pdrs_0713.html (kontsulta: 2014/12/14).

3. Frantziako Estatuak ere badu paisaiaren lege bat, 1993tik: 94-24 Legea, urtarrilaren 8koa. Hemen dago kontsultagai: <http://www.legifrance.gouv.fr/affichTexte.do?cidTexte=JORFTEXT000000541949&dateTexte=&categorieLien=id> (kontsulta: 2014/12/30).

4. Hemen daude hiru paisaia-katalogoak kontsultagai: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-cpaisaia/eu/contenidos/informacion/paisaia_2011/eu_paisaia/indice_1.html (kontsulta: 2014/12/17).

5. Basquetourren 2014-2017 Marketin Estrategia eta Ekintza Planaren laburpen exekutiboa, 6. or: http://www.basquetour.net/archivos/descargas/Marketing-Plana-2014-2017_2014_07_03_14_24_36.pdf (kontsulta: 2014/12/17).

6. 2011ko abenduan iragarri zen goiburua hori. Espainierazko bertsioa ez zen zehazki berdina, hizkuntzaren metafora ere erabili arren: “Tu paisaje habla de ti. Habla por él”.

7. Hemen dago kontsultagai: <http://www.unesco.org/culture/ich/index.php?lg=en&pg=00006> (kontsulta: 2014/12/18).

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

EAEko Administrazioa. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila: “90/2014

Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa”, EHAA, **112**, 2.623.

EAEko Administrazioa. Lehendakaritza (1982): “10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa”, EHAA, **160**, 3.138-3.146.

EAEko Administrazioa. Lehendakaritza (1998): “10/1998 Legea, apirilaren 8koa, Landa Ingurunearen Garapenerakoa”, EHAA, **80**, 7.387-7.408.

Europako Kontseilua (2000): *Paisaiaren Europako Hitzarmena*, Florentzia.

Fernández de Betoño, U. (2014): “Hirigintza eta euskara. Marko orokorra”, *BAT. Soziolinguistika aldizkaria*, **90**, 11-24. [ISSN 1130-8435]

Halliday, M.A.K. (1990): “New Ways of Meaning: A Challenge to Applied Linguistics”, *Journal of Applied Linguistics*, **6**, 7-36. [ISSN 1473-4192]

Landry, R; Bourhis, R.Y. (1997): “Linguistic Landscape and Ethnolinguistic Vitality: An Empirical Study”, *Journal of Language and Social Psychology*, **16**, 23-49. [ISSN 0261-927X]

Mark, D.M. *et al*; ed. (2011): *Landscape in Language. Transdisciplinary perspectives*, John Benjamins, Amsterdam. [ISBN 978-90-272-0286-4]

Nogué, J; ed. (2008): *El paisaje en la cultura contemporánea*, Biblioteca Nueva, Madril. [ISBN 978-84-9742-846-0]